

# INTSASOARI BEGIRA

---

*Paperezko itsasontzia egin nuen  
artean galtza motzetan nebilenean.*

*Maitekiro pausatu nuen  
ibaiko ur barean  
iraul ez zedin.*

*Haize xaflada batek ordea  
ezustean eraman zuen  
emeki emeki  
urruti urruti.*

*Itsasontzi ahul hark eraman zituen  
nere haurtzaroko fantasiak  
pirata begibakarrak eta  
ipuïn harrigarriak.  
Itsasoaren sabel izugarriak  
irentsi zituen guztiak.*

*Inoiz begiratzen dut ortzirat  
paperezko itsasontzia begietsi nahirik  
baina... ez dager.*

*Burnizko ontzi erraldoiak baino  
ez dakuzkit ur haundi horietan  
eta... malko gaziz bustitzen zait gabezia  
umetakoak baino malko gaziagoz.*



**MUNTTAR**